

Kapitalismoa, baturik eta mozorrotuta



JUAN MARI ARREGI

Talaia ekonomiko honetatik askotan salatu dugu kapitalismoa egiten ari den irudi aldaketa, “humanoago eta sozialago” agertuz etekinak pilatzen segitzeko, bere azken helburua hori baita. Uda honetan, Business Roundtable enpresa-elkarte estatubatuarrak, hamabost milioi langile enplegatzen dituzten 180 konpainiatako liderrek sinaturiko adierazpena aurkeztu du. Langileak “gizalegez konpentsatu” behar direla diote, hornitzaileekin harremana “etikoa” izan behar dela, eta ingurumena babestu behar dela “gure enpresetan praktika jasangarriak sustatzuz”.

Halako baieztapenak ezkerretik egin ahal izango lirateke. Baina horien atzean egiaz dagoena da estrategia oso bat langileen nahiz herri sektoreen “matxina-da” eta mobilizazioa saihesteko, lan prekarietateak, soldata baxuek eta aldaketa klimatikoak bultzatuta, sistema ekonomiko basati eta predatzaile honek sorturikoak baitira.

Inbertitzaile handiek, diruari errentagarritasuna ateratzeko, jokabide zehatz bat exijitzen dute. Ezin baitezakegu ahaztu funts subiranoek eta pentsio funtsek euren inbertsioak baldintzatzen dituztela konpainiek gutxieneko sozial eta ingurumenezko batzuk bete ditzaten.

Beraz, kapitalismoa gai da mugitzeko, bere burua erreformatzeko eta egokitzeko. Zinikoki erakusten du aurpegi atseginago bat, irabazi gehiago edukitzearen truke. Irakasgai handia da hori ezkerreko sistema alternatibo baten alde egiten dugunontzat: gu ez gara ados jartzen gizarte justu, libre, igualitario, solidario, ekologiko eta feminista bat lortzeko. Bananduta gaudenez, mozorrotuta dagoen kapitalismo batu horri bidea irekita uzten diogu. ●



DANI BLANCO

G7 eta borroka moldeak; aukera porrot bihurtua?

Z. OLEAGA

Aje luzea utzi du euskal herrigintzan G7aren kontra-gailurrak. Borroka bidaideen arteko bai, -bidaide diot - tentsio, eztabaida, haserre eta ezinen biharamuna da. Desobedientziaren aldeko diskurtsoa ia lurzoru komun bilakatu da. Praktikara jotzean, ordea, ustezko batasunen atzeko desadostasunak agertzen dira.

Bada desobedientzia eta edozein jendarte tentsio aurreragorako utzi nahi duenik, Hegemonia irabazi ondorenerako. Desobedientzia, ordea, gaurdanik hegemoniak eraikitzeko lanabesa ere bada. Gatazkak eta praktika desobedienteak piztu nahiko genituzkeen artean garatu da esperientzia interesgarriarik, baina desobedientzia ADNan daraman borroka herriko jarraitu eta jendetsu batetik urrun gaude. Seduzituko duten proposamenak behar ditugu, baina, nagusiki, arriskatzeko erabakimena falta dugu: askatasuna, gorputza eta batez ere poltsikoa arriskatzekoa; hanka sartzeko arriskua hartzekoa ere bai.

G7 EZ plataforman ekintza desobediente bat adostu zen igande eguerdirako. Egunez egun aldatu ostean, azkenik igande goizean bertan suspenditu zen herri harresiaren deialdia. Plataformatik kanpoko zein barneko hainbat pertsonak etsipenez edo haserrez hartu zuen erabakia.

Bi argudio eman ziren. Bata, ezin zela manifestarien “integritate fisikoa” bermatu. Harresien oinarrietako bat, ordea, gorputzak arriskuan jartzeko prestutasuna da. Bestea, plataformako kide Joseba Alvarez aurreko gauean atxilotu izana. Pertsona bakarraren esku zegoen ekintza? Atxilo zegoela bere izena erabili, jakinik berak ez zukeela suspendituko? Ez du ematen ekintza hori egiteko nahiko erabakimen eta kontsentsu zegoenik.

Munduko kriminalik handienetakoak Euskal Herrira etorri dira haien agenda egun argitan eztabaidatzeko, 20.000 poliziak babestuta eta eskubideak *de facto* ezabatuz. Normaltasun demokratikoan igaro da gailurra, eta kontra-gailurraren agendatik protestarako eskubiderik gabe utzi gaituzten horiekin adostutako ekimenak soilik egin dira. Egindakoei balorerik kentzeko asmorik gabe diot.

Borroka moldeetan zenbait korapilo askatu eta ekarpenak egiteko aukera ederra galdu dugu. Aprobetxa dezagun porrota, gailurraren ondoren azaleratu diren eztabaidak modu kolektibo interesgarrian egiteko. Desobedientziaz eta borroka moldeez, oro har. Eztabaida konplikatu zaigu hori, deserosoa, zauriak sortuko litzukeena ziurrenik. Baina heltzen ez diogun bitartean borroka sozialerako egoera konplikutzen ari zaigu, dagoeneko deserosotasun handiak daude gure artean, eta zauriak sortzen ari dira. Bai, bidaideen artean. ●